

ZUHAITZAK, HIRIETAKO BIZI KALITATEAREN BERMATZAILEAK

HARITZALDE Naturzaleen Elkartek talde bezala sortu zenetik ospatu izan du **Zuhaitz Eguna**. Ekintza hau aurrera eramatearen arrazoia zuhaitzek hirietako bizi kalitatea hobetzen berebiziko garrantzia dutela da. Baieztapen hau oinarritzen duten argudioak asko dira baina besteak beste, ondorengoak aipatu nahiko genituzke: animalia eta landaredia mota eta kopuru askorentzat ezinbesteko bizileku dira, hau da, hiriko bioaniztasuna bermatzen laguntzen dute; atmosferan aurkitzen den karbono dioxidoa (CO₂) erregulatzen dute (berotegi efektuari aurre egiten diote) eta aldi berean, hirietako airea oxigenatzen laguntzen dute, zeina nabarmenki kutsatua egoten den, garraioarengatik, esate baterako; zarataren aurkako pantaila efektua betetzen dute; beren hostoen bitartez aireko hauts partikulak zein hainbat mikroorganismo patogeno geldiarazten dituzte, zeintzuk osasunarentzat kaltegarri suertatzen eta era horretan, arnasten dugun aire garbitzen dute; maldetan dauden zuhaitzek higadura fenomenoak ekidin eta euriaren indarra gelditzen dute; zuhaitzen orbelak, hildako adarrek eta sustraiek luraren berezitasun fisiko zein kimikoak hobetzen dituzte, hau da, laborantzarako lur emankorrak sortzen laguntzen dute; udan itzala ematen dute; hiri paisaia estetikoki hobetzen laguntzen dute eta azkenik, gizakiak beharrezko dituen natur baliabide ugari eskaintzen dituzte, hala nola, fruituak, egurra, papera eta medikuntzarako baliagarriak diren zenbait substantzia.

Gure elkartearen ikuspuntutik, ezinbestekoa da hiritarrek zuhaitzek eta hirietako gune berdeek betetzen duten papera argi edukitzea eta horiek babestera zuzentzen diren ekintzen parte hartzea bultzatzea. Horregatik, Haritzaldek herritar guztiak animatu nahi ditu gure elkartek helburu honekin erlazioa duten ekintzetako batean parte hartzera; martxoaren 6an (goizean), Donostiako Puio parkean (Aiete auzoan) ospatuko dugun **Zuhaitz Egunean**, hain zuzen ere. Aipatu ekintzan, elkarteko kideek parte hartzeaz gain, eskoletako haurrak ere bertan izanen dira.

Era berean, halako ekintzak aurrera eramateaz gain, garrantzia handia du botere publikoak zuhaitzen defentsa eta gune berdeen babesarekin modu eraginkor batean inplikatzeari, ez baita nahikoa urtean behin zuhaitz eguna ospatzearekin.

Donostian, 2005eko otsailaren 24ean.